BIDERKADURA NABARMENAK

Azter itzazu bi adierazpen aljebraiko hauek:

- $\boldsymbol{a+b}$
- $\boldsymbol{a-b}$

1.
   a) Zer izen dute bi adierazpenek? (monomio, polinomio, ...)

   b) Zenbat gai dituzte?

   c) Zeintzuk dira bere aldagaiak?

   d) Zer mailakoak dira?

   e) Zer da desberdina bi polinomioen artean?

2. Har ezazu **batura**, hau da, lehenengo polinomioa, eta kalkula ezazu bere **berbidura**: $\boldsymbol{(a+b)^2}$. Horretarako egin ezazu $\boldsymbol{(a+b)\cdot(a+b)}$ biderkaketa.

3. Har ezazu **kendura**, hau da, bigarrengo polinomioa, eta kalkula ezazu bere **berbidura**: $\boldsymbol{(a-b)^2}$. Horretarako egin ezazu $\boldsymbol{(a-b)\cdot(a-b)}$ biderkaketa.

LIVEWORKSHEETS

4. Har itzazu orain biak, **batura** eta **kendura**, hau da, bi polinomioak, eta kalkula ezazu bere **biderkadura**: $(\boldsymbol{a}+\boldsymbol{b})\cdot(\boldsymbol{a}-\boldsymbol{b})$ biderkaketa.

5. Lortu dituzun emaitzekin osa itzazu esaldi hauek:

a) $(\boldsymbol{a}+\boldsymbol{b})^2 =$

b) $(\boldsymbol{a}-\boldsymbol{b})^2 =$

c) $(\boldsymbol{a}+\boldsymbol{b})\cdot(\boldsymbol{a}-\boldsymbol{b}) =$

d) **Baturaren karratua = lehenengo batugaiaren karratua, GEHI lehenengoa bider bigarrenaren bikoitza + bigarrenaren karratua.**

e) **Kenduraren karratua =**

f) **Batura bider kendura =**

LIVEWORKSHEETS